

Endika Fernandez, Rafting taldeko kidea

“Rafting-ak zirrara une asko eskaintzen du”

Ermuar gazte hau, duela 7 urte herrian sortu zen Rafting taldeko kidea dugu. Zaletu asko ez dituen kirola izan arren, 6 edo 8 kidez osatutako taldea osatzeko aukera duenean, Euskal Herriko ibaiak jaisten aritzen dira. Kirol honen eta taldearen berri jakin nahiean Endikarekin solasaldia izan dugu.

- Nolatan sortu zen Rafting taldea?

Duela 7 urte inguru, apostu baten ondorioz eratu zen. Bi kidek ibai bat jaitsiko zuten ala ez egin zuten apostua eta horren ondorioz apurka apurka irteerak antolatzen hasi ginen. Berez ez gara talde bat, lagun taldea garela esango nuke.

- Zenbat kide ditu?

6 edo 8 pertsona inguru batzen gara. Adin ezberdinekoak gara. Ezkonduta daudenak ere badira tartean eta ondorioz irteerak egiteko zailtasunak izaten ditugu.

- Taldea osatu ezean ezin da jaitsierarik egin....


Jaitsierak egiteko txalupa bat erabiltzen dugu. Normalean 6 kide behar izaten dira jaitsiera egiteko eta guztiak ezin bagara joan ez dago irteerarik.

- Non egiten dituzue jaitsierak?

Iparraldera oso maiz joaten gara. Baita ere Santander, Burgos eta Katalunia aldera ere.

- Rafting-a kirol garestia da?

Hasieran gastu batzuk egitea eskatzen du. Ekipaia egoia behar da, txalupak berak ere diru dexente balio du. Ekipaiari dagokionez, aipatu nahi nuke Artarrai elkarteak asko laguntzen digula beraiena utziaz.



- Arrisku handiko kirola da....

Jaitsierak zailtasun ezberdinekoak dira. Badira batzuk oso teknikoak direnak eta arrisku handia dutenak hala ere, zirrara eta gozamina, biak batera nahasten direnean oso gauza berezia izaten da.

- Kirol hau ez dago oso hedatua....

Txalupaz eta lagunartean jaisteari dagokionez, Euskal Herrian eta Espainian bakarrenetakoak garela esango nuke. Piraguarekin jaitsiera egiten dutenak asko dira baina gurean bakarrik gara.



- Irteerak nola prestatzen dituzue?

Asteazken zehar, ostegunetan euria hasten bada elkarri telefonoz deika hasten gara asteburuko plana egin asmoz. Behin taldea osatu ostean, irteera erabaki eta bertan gaudenean, jaitsiera aztertzen dugu, eztabaidatu, jaitsiera egin eta ondoren lagun arteko bazkaria.

- Jaitsiera egin ala ez adostean izango da eztabaidarik...

Sarritan eztabaidatzen dugu baina denok ados egon ezean ez dugu jaitsiera burutzen.

- Istripu edo larritasunen bat izango zenuten....

●rain arte ez dugu istripu larriarik izan. Txikiren bat bai baina hala ere, egoera guztiak kontrolpean izatea ez da erreza izaten.

- Zenbat irteera burutzen dituzue urtearen amaieran...

12 inguru. Martxoaren amaieran hasi eta Uztaila bitartean.

- Kirol honen alderdi politena?

Rafting-ari esker oso paisaia politak ikusteko parada izaten dela, tartean inoiz aurrez aurre ikusi gabeko animaliak ere.

- Iluna ere izango du....

Ura sarritan oso hotza izaten dela eta hotz ikaragarria izaten dugula.

Astier Ibaibarriaga

COR Bideo Estudio
Grabazioa
Postproduktzioa
VII. Centenario 12
943 17 90 53

Proba-Leku
Ileapaindegia - Estetika
Probaleku 3, 1A
Tel. 943 17 05 42

BELART
Eskulanak
eta Sormen lanak
Probaleku, 5 behe
Tel. 646 34 41 24
48260 ERMUA
Bizkaia

**CITROËN
AUTOS AMEDI**
Izelaieta 23
Tel. eta Faxe. 943 17 04 14

PUB YOMY
Zubiaurre
kalearen
bihotzean

BAR
BOINKA

MUGA
San Pelaio 4A behe
Telefonoa: 17 64 77
ERMUA

Pub SCORPIO
Zubiaurre, 21
ERMUA

**ELEKTRIZITATEA
ZUBIAURRE**
ARGIGINTZA eta HARILKETAK
Zubiaurre, 18 - ☎ (943) 17 00 61
48260 ERMUA